

Bai We Can 2023-2027

Alkategaiaren konpromisoak IRATXE PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

1. Udalerrian, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak dokumentu honetan aurkezten dituen konpromisoak sinatu dituzten alderdiko ordezkariekin, euskara zinegotzia edo eta alkatearekin batera, eta udaleko euskara teknikariaren parte hartzearekin, hemen sinatzen ditudan konpromisoen jarraipena egin eta udalaren hizkuntza politikaz jarduteko, mahaia osatu eta gutxienez urtean behin biltzeko konpromisoa hartzen dut. ✓

sinadura

[]

2. Hizkuntza eskubideak Udalean bermatzeko lan egin eta berauen urraketen aurrean, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluarekin eta gainerako alderdi sinatzaileekin protokolo bat adostu eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen dut. ✓

sinadura

[]

3. 2023ko udal hauteskunde kanpainari dagokionez honako konpromisoak hartzen ditut:

Nire hautagaitzaren kanpainako ekitaldi guztietan euskararen presentzia gutxienez % 50ekoa izango da

Kartelak elebidunak izango dira gutxienez eta euskarak lehentasuna izango du, lehenago agertuz edo tipografikoki nabarmenduz

Banatuko dugun informazioa, prentsa oharrak eta esku-orriak gutxienez elebitan joango dira osoki

sinadura

[]

4. Udal politika eta jardunaren bitartez euskararen normalkuntzan aurrera pausuak emateko xedearekin, ondorengo eskakizunetatik honakoak (X) betetzeko konpromisoa hartzen dut:

Sail edo arlo bat zuzentzeko hautatuko ditudan zinegotzi guztiak euskaldun hiztunak izango dira legegintzaldian zehar

Euskara ikasteko doakotasuna lortzeko pausuak emateko bidean neurri zehatzak hartuko ditut

Udal aldizkariaren, web orriaren eta udalaren sare sozialen eduki osoa % 100an euskaraz irakurtzeko aukera bermatuko dut

Euskara Planaren betetze maila neurtzeko txostena egin, publiko egin eta hedatuko dut

Aiaraldeko Euskaingintzaren Kontseiluarekin negoziatuta Udalaren kultur programazioan euskararen kuota bat finkatuko du Udal gobernua, urtero-urtero kuota hau birnegoziatuz

Udalak 18 urtez beherakoentzat zuzendutako eskaintza eta programazio osoa euskaraz egingo duenaren konpromisoa hartzen dut

Udalbatzan nire jardun osoaren % 50a gutxienez, izango da euskaraz

Udalaren aisialdia eta kultura programazioa plazaratzean hizkuntza azterketa egiteko konpromisoa hartzen dut, bai eta informazio hau publiko egitekoa ere

Udalak eskaintzen dituen ikastaro guztietan monitoreak elebidunak izatea bermatuko dut

Udalean hizkuntza normalizaziora bideratzen den giza-baliabide kopurua (teknikariak, itzultzaileak...) Eusko Jaurlaritzak zehazten duen irizpidearen arabera izateko konpromisoa hartzen dut

Udalaren kanpo-komunikazio guztia (oharrak, bandoak, prentsa oharrak, kartelak, esku-orriak) %100ean euskaraz irakurtzeko aukera ahalbidetzea, ohiko zabalpen kanal publikoen bidez.

Udalaren jendaurreko arreta zerbitzu guztietan euskarazko arreta %100ean bermatzea.

Diru- publikoa jasotzen duten entitate eta elkarteei, derrigorrezko baldintza gisa euren kanpo komunikazioa (kartelak eta ekitaldietako esatariak) gutxienez elebitan eta euskarari lehentasuna emanez izango dela ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea hala izan dadin.

Udalaren kanpo kontratazioetan (lizitazioak, azpikontratazioak...), hizkuntz irizpideak ezartzea eta jarraipen baliabideak bermatzea.

Udalean sortuko diren lanpostu berrietan zein ordezkapenetan dagokion hizkuntz-eskakizuna bermatzea eta derrigortasun datak ezarri eta betearaztea.

Udalak herritarrekin dituen bilera eta batzarretan hala nahi duten herritarrei soilik euskaraz aritzeko aukera bermatzea.

sinadura

[]

Data ARESPALDITZA 2023/05/17

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren ordezkariak sinatua: